

TALAIAN

Prezioen behatokia

Elikadura izan da azken hilabeteotan Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) igoarazi duen arrazoi nagusietakoa. Igoera horiek, zalapartatsuak askotan, jatorrizko prezioen hazkundearekin azaldu ziren. Orain, ordea, aurkakoa gertatzen ari da: premiazko elikagai askoren prezioak jaitsi egin dira sorotan, baina kontsumitzaileak ez du horren isla ikusi dendetan. Jatorrian kiloko 1,38 euro balio zuen oilaskoa, adibidez, kiloko 0,82 eurotarra jaitsi da azken asteetan. Kontsumitzaileak ez du halakorik ikusi dendan. Gauza bera gertatu da arrautza eta esnearekin, baina kontsumitzaileak ez dira ohartu oraindik.

Datu horiek lehenengo astean argitaratu ziren, EHNE nekazari sindikatuak Gasteizen eginiko mobilizazioarekin batera. Sindikatuak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion ekoizpen kostuak murriztu, ekoizlearen lana modu egokian ordaindu eta bitartekarien gehiegikeria saihestuz kontsumorako bidezkoak diren prezioak ezarri ahal izateko moduko nekazaritza politika. Nekazariak kobratzen dituzten prezio baxuak kontsumo prezioaren oso azpitik daude, azken hori espekulazioak, bitartekariak eta azalera handiek beraiek puzten baitute. Egoera horren aurrean, nekazari sindikatuak proposatu zuen ekoizpen kate osoan, kortatik mahaira, prezioen jarraipena egin eta egoera irregularrak eta espekulatuzaileak zigortuko lituzkeen Prezioen Behatokia sortzeko. Era berean, administrazioari bitartekaririk gabeko merkaturatze zirkuitu txikiak bultzatzeko eskatu zion. Behatokia eta eskatutako merkaturatze sistema hori elikadura kate osora zabaldu beharko lirakeke. Ekoizlearen eta kontsumitzailearen onurarako.

Juan Mari Arregi

“Lá Nua” egunkari gaelikoa eta “Y Byd” proiektu galesa larri

EGUNKARI irlandarrak eta Galeseko proiektuak arazo ekonomiko larriak dituzte eta bertan behera geratzeko zorian dira. Gaelkozko *Lá Nua* egunkariak diru sarrera apartekorik lortzen ez badu, martxoaren 1ean itxiko du agerkaria. Langileek ez dute aurrera segitzeko itxaropena galdu, baina agian, on-line bertsioarekin moldatu beharko dute aurreantzean. *Lá Nua* duela hogeit hamar urte sortu zen eta Ipar Irlandako zein Irlandako Gobernuaren diru-laguntzak jaso ditu. *Y Byd*, galeseraz idatzitako lehenengo egunkaria sortzeko ekimena, 2002an hasi zen. Herritarrei esker 500.000 euro bilduak dituzte. 5.000 harpidedun lortzea zen asmoa eta Gobernuak 800.000 euro ematea. Galeseko Gobernuak adierazi berri du ordea, egunkaria sortutako lehen urtean 270.000 euro emango dituela. Datozen asteetan aukera guztiak aztertuko dituzte ekimenaren sustatzaileak.

2010ean unibertsitate berria

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK, Nazio Eztatidaguneak eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak aurkeztu dute euskarazko unibertsitatearen proiektua. Oraindik zehaztu ez dituzten zortzi titulazioarekin hasi nahi dute 2010-2011 ikasturtea. Sustatzaileen hitzetan, unibertsitate “euskalduna, herritarra eta nazionala” izango da. Campusa Nafarroan edo Gipuzkoan eraikiko dute.

BAHEA

Joxe Azurmendik *Berrian* esanak: “Pentsa, gizarte batean komunikazioa oinarritzen duen hizkuntzak prentsa, irrati-telebista, informazio guztia, eskola eta unibertsitatea, literatura, lan eta negozio harremanak, ideologia politiko eta erlijiosoak... sare sozial guztia elkarbiltzen du, eta beste hizkuntza bateko gizartetik bereizi. Zer esan gura du hemen ‘tresna soila’ izateak? Faktore bakarra izan gabe, hizkuntzaren zerikusia herri baten izaerarekin, historikoki eta soziologikoki ebidentea da. Beste arazo bat da gero, beste moduko eragin sakonagorik ere ba al duen giza edo herri gogoan”.



Ondarre baserria



20214 Segura (Gipuzkoa)
Tel.: 943 801684
e-posta: ondarre@hispanista.com
www.acvmultimedia.com/ondarre